

# Baigorriko Berriak

BAIGORRIKO BERRIAK - Bulletin municipal d'information - 2022ko Agorrila - Août 2022 - n° 5



## ACTUALITÉS

### Travaux en cours

Les **133 zones impactées** sur la commune suite aux **intempéries** de cet hiver sont au cœur de nos préoccupations, tant sur le plan de la sécurité que sur celui de l'impact financier sur le budget de la commune.

En parallèle, les études concernant la dizaine de gros dommages comme les ponts de Germieta ou d'Haitzalde sont en cours d'analyse.

A ce jour, n'ayant pas de retour de notre demande de sollicitation financière de la part de l'Etat, il nous est difficile d'établir un programme précis.

Plus de 80 zones ont été traitées dont plus de la moitié par les agents communaux.

En conséquence, les **travaux de fauchage** ont été décalés de deux semaines cette année.

Pour rappel, depuis 2015, les agents communaux prennent en charge cette prestation pour réduire les coûts. La priorité est donnée à l'accès des ERP (Etablissement recevant du Public) comme Manexenea ou Oronozia.

Ils ont également réalisé d'autres prestations :

- Un coussin berlinois a été installé près du fronton de l'église pour pacifier la circulation.
- 6 caveaux supplémentaires ont été construits au cimetière.

Le sol en **terre battue du fronton** a été refait pour un montant de 33 000 euros. Nous avons accueilli la finale du championnat du Pays Basque de rebot le dimanche 24 juillet.

**Ces travaux étant coûteux, nous rappelons à tous l'importance de respecter la partie en terre battue sans y faire du vélo ou jouer avec le sable.** Il est interdit d'y jouer dessus, à moins de passer le filet qui sera mis à disposition à la cahute à gauche du fronton.



Dégâts de décembre 2021 à Aparaineo bidea

### Egiten ari diren obrak

Negu huntako **aro txarraren** ondorioz **kaltetu herriko 133 guneak** gure arrangura nagusietarik dira, bai segurtasunaren aldetik, bai herriaren buxetean duten finantza mailako eraginaren aldetik.

Bertzalde, Germietako edo Haitzaldeko zubietan gertatu bezalako hamar bat desmasia handiri buruzko ikerketak azterketa fasean dira.

Gaurko egunean, ez dugunez erantzunik Estatuari egin ginakon finantza-eskaerari buruz, zaila zauku programa zehatz bat plantan ezartzea.

80 gune baino gehiago landuak izan dira; horietatik erdia baino gehiago herriko langileen eskutik.

Beraz, aurren, **belar-mozte lanak** bi astez dekalatu ditugu. Oroit gaitezen 2015az geroztik herriko langileek beren gain hartzen dutela zerbitzu hori, gastuak ttipitzeko xedez. Lehenasuna emaiten zako Publikoa Errezibitzen duten Establimenduetarat joaiteko errextasunari (adibidez, Manexenerat edo Oronoziarat).

Gisa berean, bertze zerbitzu batzuk ere segurtatu dituzte:

- Berlindar kuxin bat ezarri elizako plazaren ondoan, zirkulazioaren baketzeko
- 6 hilobi gehiago eraiki hilerrian.

**Pilota plazako lur-arrasezko zola** berriz egin da: 33 000 euro gosta da. Euskal Herriko erreboteko txapelketaren finala errezibitu dugu uztailearen 24an, igandearekin.

**Lan horiek kario direnez, dener orotarazten deegu lur-arrasezko partearen errespetatzea inportantea dela, bizikletan ibili gabe edo harearekin jostatu gabe.** Debekatua da han jostatzea frontoiaren ezkeraldeko etxolan ezarriko den sarea pasatu gabe.

# TRANSITION ÉCOLOGIQUE

# TRANSIZIO EKOLOGIKOA

## Participez à la chasse aux poteaux inutiles d'éclairage public!

Le diagnostic complet des 300 poteaux d'éclairage public de la commune devrait se terminer cet automne. Financé à 100% par le SDEPA (Syndicat Départemental d'Énergie), il nous permettra de prioriser le remplacement des poteaux vétustes et le passage en ampoule LED pour les autres (économie de 50% et durée de vie 30 fois plus long que les classiques).

Mais certains poteaux installés il y a longtemps ne présentent peu ou plus d'intérêt à ce jour, comme cet exemple ci-contre.

### Aidez-nous à repérer ces poteaux inutiles en les signalant à la Mairie !

Nous interrogerons les riverains concernés avant de les supprimer. Trente poteaux supprimés représenteraient 10% d'économie sur ce poste du budget communal !

Au moment où le prix de l'électricité flambe, il est capital de maîtriser au mieux nos dépenses énergétiques. Pour rappel depuis un an, l'éclairage public est éteint de 23h à 6h, permettant de préserver les rythmes biologiques de la faune et de la flore et réduire nos consommations d'énergie superflues.



## Prévention des orages de grêle

En 1951, un groupe d'agriculteurs, d'agronomes, de physiciens et d'élus ont créé l'ANELFA (Association Nationale d'Étude et de Lutte contre les Fléaux Atmosphériques) pour perfectionner une méthode de traitement des orages afin de réduire les dégâts causés par la grêle.

Depuis 5 ans, **le dispositif fonctionne sur notre secteur** avec des générateurs sur Baigorri, Banka, Bidarraï et Arnegi. (un cinquième doit être installé à Izpegi pour améliorer la couverture). Avertis par une alerte émise par Météo France et l'ADELFA, 2 bénévoles activent le dispositif dans chaque village, d'avril à octobre. Il est activé une vingtaine de fois par an en moyenne.

Le générateur (photo ci-contre) envoie dans les nuages des noyaux glaçogènes d'iodure d'argent de façon à augmenter le nombre de cristaux de glace, et à **réduire en conséquence la dimension des grêlons** : ceux-ci tombent alors plus lentement et fondent en totalité ou en partie avant d'atteindre le sol.

Le financement est assuré principalement par le Conseil Départemental, la Chambre d'Agriculture et le Syndicat des Vins d'Irouléguy.

Plus de détail sur [www.anelfa.asso.fr](http://www.anelfa.asso.fr)

## Behar ez diren argi publikoetako zutoinen bilaketan parte har ezazu!

Herriko argi publikoetako 300 zutoinen diagnostiko osoa larrazken huntan bururatu behar litzateke. SDEPAk (Departamenduko Energiaren Sindikatuak) %100ean diruztatzen du eta, horri esker, zutoin zaharkituak ordezkatuak ditugu eta gaineratekoetan LED anpoilak ezarriko (klasikoek baino %50 energia gutiago xahutzen dute eta 30 aldiz denbora gehiago irauten).

Bainan aspaldi instalatu zutoin batzuek interes guti edo batere ez dute gehiago; argazkian ageri den horrek, adibidez.

### Beharrezkoak ez diren zutoin horiek atzemaiten lagun gaitzazu, herriko etxeari seinalatuz!

Auzokoer galdeginen deegu kendu aitzin. Hogoita hamar zutoin kentzen bagenitu, %10eko ekonomia eginen ginuke herriko buxeteko lerro hortan!

Elektrizitatearen prezioa goiti doan momentu huntan, funtsezkoa da gure energia-gastuak ahal bezain ontsa kontrolatzea. Oroitarazten dauzuegu, urte bat huntan, argi publikoak 23:00etatik 6:00ak arte itzaltzen direla eta, horri esker, faunaren eta floraren erritmo biologikoak hobeki errespetatzen direla, eta beharrezkoak ez diren energia-kontsumoak murrizten.

## Harri erauntsien prebentzioa

1951n, laborari, agronomo, fisikari eta hautetsi talde batek ANELFA erakundea sortu zuen (kalte atmosferiko handien kontra lan egiteko ikerketarako elkarte), ekaitzen kontrako metodo baten ontzeko, harriak eragin kalteen arintzeko xedez.

Bortz urte badira baliabidea martxan dela gure eremuan; sorgailuak badira Baigorri, Banka, Bidarrain eta Arnegin (borzgarren bat ezarri behar da Izpegin, gerizaren hobetzeko). Météo Francek eta ANELFAk igorri alerta baten ondorioz, bi boluntariok baliabidea pizten dute herri bakotxean, apiriletik urria arte. Urtean hogoi bat aldiz pizten da, bataz bertze.

Sorgailuak (ikus ondoko argazkian), zilar iodurozko nukleo horma-egileak igortzen ditu lainoetarar, horma-kristalen kopuruaren handitzeko eta, ondorioz, **harri pikorren izariaren tipitzeko**: hauek emekiago erortzen dira eta lurreraino jautsi aitzin osorik edo partez urtzen dira.

Diruztatzea, batez ere, Departamendu Kontseiluak, Departamenduko Laborantza Ganbarak eta Irulegiko Arnoen Sindikatuak segurtatzen dute.

Informazio gehiago hemen: [www.anelfa.asso.fr](http://www.anelfa.asso.fr)



# ACTUALITÉS

## Des nouvelles des projets de la CAPB à Baigorri

La Communauté d'Agglomération Pays Basque a voté en mai dernier son « **Plan Piscine** » dont la priorité est la maîtrise du « savoir nager » pour tous les enfants du Pays Basque. La seconde ambition est le développement des activités de loisirs et de santé. Ce Plan valide le maintien de la piscine de Baigorri dans les piscines d'intérêt communautaire. Grâce à cela, la CAPB y investira d'ici 2030 autour de 2 millions d'euros pour la rénovation et mise aux normes. Elle est ouverte de fin mai à fin septembre et offre plusieurs activités d'apprentissage, perfectionnement ou aquagym par exemple.

Concernant la future **Salle de Hand**, les études préliminaires sont faites et la première phase du concours d'architectes vient d'être lancée en juin. Les travaux devraient démarrer en 2024 pour une ouverture espérée en été 2025.



Mixeleneko bidea

## Mixeleneko bidea semi-piétonne !

Par mesure de sécurité, le Chemin de Mixelenea est désormais interdit à la circulation (sauf riverains). L'installation de barrières au milieu de la voie permet aux piétons et aux vélos de profiter du calme ! Cependant, lors de manifestations importantes au village et en concertation avec la mairie, la voie peut être momentanément praticable.

## Une nouvelle table d'orientation à Oilarandoi

Pour la voir, il vous faudra monter à la Chapelle d'Oilarandoi, qui domine Baigorri. Endommagée par l'usure du temps, une nouvelle table a été installée par les employés communaux en mai dernier.

**Un peu d'Histoire :** le 9 mai 1706 la cour générale de la Vallée décide d'élever ici un ermitage, voué à la protection des vignes et cultures contre les orages de grêle. Après la révolution de 1789, l'édifice tombe en ruine. A partir de 1804, une procession a lieu chaque année. En 1941, le curé J-Olhagaray décide de faire construire une chapelle, inaugurée le 25 Mai 1942. Endommagée par les intempéries, les paroissiens reconstruisent une chapelle en 1985.

Deux processions sont organisées le lundi matin de Pentecôte et l'après-midi du troisième dimanche d'août. A vos chaussures de marche !

# BERRIAK

## Euskal Elkargoak Baigorri dituen proiektuen berri

Euskal Hirigune Elkargoak joan den maiatzean bozkatu zuen bere «**Igerileku Plana**»: horren lehentasuna «Euskal Herriko haur guzietan igeri egiten jakitea» da. Bigarren xedea aisialdi eta osasun aktibitateen garatzea da. **Plan horrek Baigorriko igerilekua interes komunitarioko igerilekuen artean atxikitzea baieztatzen du.** Horri esker, Euskal Elkargoak, hemendik 2030a arte, 2 milioi euro inguru erabiliko ditu gure igerilekuaren berritzeko eta normetan ezartzeko. Maiatzaren bukaeratik buruilaren bukaera arte irekirik da eta hainbat ikasketa-aktibitate eskaintzen ditu, adibidez igeri egiten hobetzea edo aquagyma.

Etorkizuneko **eskubaloi-salari** buruz, aitzin-azterketak eginak dira eta, ekainean, arkitektoen lehiaketaren lehen fasea hasi da. Lanak 2024an hasiko dira, eta 2025eko udan irekitzea espero da.

## Mixeleneko bidea erdi oinezko!

Segurtasun neurri gisa, Mixeleneko bidea zirkulazioari debekatua zako (salbu han bizi direnen kasuan). Hesiak jarri dira bidearen erdian eta, horri esker, oinezkoak eta bizikletariak lasai ibiltzen ahal dira! Hala ere, herriko gertakari inportanteen kariatarat, herriko etxearekin hitzarturik, bidea aldi baterako irekitzen ahal da.

## Orientazio mahai berria Oilarandoi

Haren ikusteko, Oilarandoiko kaperarat igan beharko duzu; handik, Baigorri osoa ere ikusiko duzu. Denboraren joanean orientazio mahaia andeatu zen eta, joan den maiatzean, herriko langileek mahai berria ezarri dute.

**Historia pixka bat:** 1706ko maiatzaren 9an, Ibarreko gorte orokorrak ermita bat eraikitzea deliberatu zuen, mahastiak eta laborantzako lurak harri erauntsietarik babesteko. 1789ko iraultzaren ondotik, eraikina erortzen hasi zen. 1804az geroz, urte guziz, prozesio bat egiten da. 1941ean, J-Olhagaray apezak kapera bat eraikiaraztea erabaki zuen, eta 1942ko maiatzaren 25ean inauguratu zen. Aro txarrak andeatu zuen eta eliztarrek kapera bat berriz eraiki zuten, 1985ean.

Bi prozesio antolatzen dira : mendekoste astelehenez goizarekin eta agorriko hirugarren igandean, arratsaldearekin. Zapatak oinetan, ibili mendian !»



Sommet d'oilarandoi

## L'étude Centre Bourg sur les rails

A travers l'appui du CAUE 64 (Conseil d'Architecture, d'Urbanisme et d'Environnement), l'hiver dernier a été consacré à la préfiguration de l'étude « Aménagement du centre bourg » dont l'objectif principal est la sécurisation des déplacements dans la zone « Place – VVF - Pont Etxeberriena ».

Dans la continuité de cette démarche, une consultation est lancée par le CAUE pour choisir les cabinets d'études qui accompagneront la commune dans l'élaboration du plan de référence.

Les réflexions pré-opérationnelles qui seront conduites durant l'automne 2022 portent ainsi l'ambition de définir les actions à entreprendre pour accompagner le développement du centre bourg (sécurisation des flux, renforcement des équipements, requalification des espaces publics). Outre le volet programmatique, cette vision d'ensemble à long terme aura également pour vocation d'anticiper, d'évaluer et de flécher les investissements publics à consentir. C'est pourquoi la réunion publique sur le sujet est reportée à l'automne.

## Développons le participatif !

Nous souhaitons vous consulter régulièrement sur les grands sujets pour prendre en compte vos avis et construire les projets au plus près des souhaits des habitants, selon nos capacités financières.

La 1ère réussite fut **la rénovation du Jardin Public** dont les équipements installés en 2021 ont été choisis après une large consultation des enfants des 3 écoles. Une réunion d'échanges avec les riverains avait également permis de finaliser ensemble les détails de certains aménagements.

Un groupe de baigorriar est déjà constitué pour le projet de la valorisation de la carrière.

Des **Commissions extra-municipales** « Transition écologique » et « Habitat » se réunissent régulièrement.

A l'automne, nous souhaitons mettre en place une autre commission extra-municipale sur l'agriculture.

Par ailleurs, la commune engage une réflexion sur la refonte de son site Internet. Vous trouverez ci-joint un formulaire pour soumettre vos idées de thèmes.

Vous pouvez rejoindre un de ces groupes en vous adressant à la Mairie.

## Mariages

Erratum : La mention d'un mariage a été oublié dans la liste du dernier bulletin. Toutes nos excuses à

**Miren TRISTANT & Xavier GASCUE le 21/08/2021**

## *J'ai une question Monsieur le Maire*

Si vous souhaitez interroger M. le Maire ou simplement faire part de vos remarques, déposez ou adressez un courrier à M. le Maire :  
Mairie - 64430 St Etienne de Baigorry ou adressez un mail à :  
contact@baigorry.fr

## Herri Erdialdeari buruzko ikerketa egiten ari da

Arkitektura, Hirigintza eta Ingurumen Kontseiluaren laguntzari esker, joan den neguan "Herri Erdialdearen egokitzea" izeneko ikerketa egin zen. Ikerketa horren helburu nagusia "Plaza-VVF-Etxeberriena" eremuan egiten diren joan-jinak segurtasunean ezartzea da.

Urrats horri segituz, CAUE egiturak kontsulta bat abiatu du, herria erreferentziako plana prestatzen lagunduko duten ikerketa bulegoen hautatzeko.

Beraz, 2022. urtean egingen diren lanen aitzineko gogoetek helburu hau dute: Herri Erdialdearen garapena laguntzeko burutu beharreko ekintzen definitzea (jarioen segurtasuna, ekipamenduen indartzea, espazio publikoen birkalkifikatzea). Programaren alderdiaz gain, epe luzeko ikuspegi orokor horren helburua izanen da onartu beharreko inbestimendu publikoen aitzinetik ikustea, ebaluatzea eta seinatzea. Horrengatik, gaiari buruzko bilkura publikoa larrazkenerat gibelatu da.

## Parte hartzeko posibilitateak gara ditzagun!

Gai nagusier buruz erregulariki kontsultatu nahi zituztegu, zuen iritziak kontuan hartzeko eta proiektuak herritarren nahietarik ahal bezain hurbil erakitzeko, gure finantza-ahalen arabera.

Lehen kausitzea Lorategi Publikoaren berritzea izan zen. 2021ean instalatu muntaduren hautatzeko, kontsulta zabala egin zen 3 eskoletako haurrekin. Auzoko bizilagunekin egin bilkura batek ere muntadura batzuen xehetasunak elgarrekin zehazteko okasioa eman zuen.

Baigorriar talde bat jadanik osatua da

harrobiaren balorizatzeko proiektuaren inguruan. Herriko kontseilutik kanpoko «Trantsizio ekologikoa» eta «Bizilekua» batzordeak erregulariki biltzen dira.

Larrazkenean, laborantzari buruzko herriko kontseilutik kanpoko bertze batzorde bat antolatu nahi dugu.

Bertzalde, herria bere webgunearen berritzeaz gogoetatzen hasi da. Gaier buruz dituzun ideiak aurkezteko orri bat honi datxikiola aurkituko duzu.

Talde horietako batean sar zaitezke Herriko Etxean aipatuz.

## Ezkontzak

Erratum: Azken kazetako zerrendan ahantzi da ezkontza baten aipatzea. Barkamena eskatzen deegu

**Miren TRISTANTi eta Xavier GASCUEri 2021/08/21ean ezkondu ziren**

## *Galdera bat badit, jaun auzapeza*

Zerbait galdetu nahi badakozu jaun auzapezari edo, bertzerik gabe, zure oharren berri eman, gutun bat utz edo igor ezazu helbide huntarat: Jaun Auzapeza - Herriko Etxea - 64430 Baigorry, edo mezu elektronikoko bat helbide huntarat: contact@baigorry.fr